

Hezkidetzan Esku Hartzen: ikasgelatik hasita parekidetasunaren alde konpetentzia-bidea egiten

Programa



Aurkibidea

1. SARRERA
3. EDUKIAK
4. IRAKASKUNTZA EMAITZAK
5. DENBORALIZAZIOA
6. METODOLOGIA
7. NORI ZUZENDUTA
7. EBALUAZIOA
8. EGILEAK/IRAKASLEAK

Zuzendaria: Arantza Campos UPV/EHUko [Hezkidetzan Esku Hartzen](#) online ikastaro osagarriaren zuzendaria.

Egileak: Beatriz Ugarte Maiztegi, Maria Luisa Otaduy Bengoa, M^a Jesús (Make) Irigoyen Perurena eta Itziar Irigoien Perurena.

Logoaren egilea: K. Zeberio Sainz de Rozas

Lan hau Creative Commons [Aitortu-Ez komertziala-PartekatuBerdin 4.0](#) [Nazioartekoa](#) baimenaren menpe dago.



"Mundu akademikoa ez da paradisia. Ikaskuntza, hala ere, leku bat da non paradisia sor daitekeen. Dituen muga guztiak dituela, ikasgelak jarraitzen du aukera-agertoki bat izaten. Aukera-eremu horretan, askatasunaren alde lan egiteko aukera dugu, guri eta gure lankideei errealitateari aurre egin ahal izateko adimena eta bihotza zabaltzeko esijitzeko aukera, kolektiboki mugak nola gainditu eta urratu imajinatzen dugun bitartean. Hori da hezkuntza askatasun-praktika gisa".

bell hooks, Enseñar a transgredir. La educación como práctica de la libertad, 2021

[guk itzulia]

1. SARRERA

Hezkidetzan Esku Hartzen: ikasgelatik hasita parekidetasunaren alde kompetentzia-bidea egiten ikastaroa ardatz honen inguruan garatzen da:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaraturiko **II. Hezkidetzeta, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019- 2023) Plana**. Eskola funtsezko eragile sozializatailea izanik, hezkidetzeta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan elementu nagusizat jotzen du genero-aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko. Bide horretan beharrezkotzat jotzen du komunitate hezitzailearen eta Hezkuntza Sailaren zerbitzuen prestakuntza. Izan ere, Planak hiru helburu estrategiko ditu:

- Hezkuntza Saila eta hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzeta-eskola ereduia sustatuko duten egituraz eta pertsoez.
- Bultzada ematea ikastetxeek genero-ikuspegia beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan txertatzeari.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa, detekzio goiztiarra eta erantzun eraginkorra lortzeko mekanismoak martxan jartzea.

Ikastaro honek Hezkidetzeta Planak proposatzen dituen 8 zutabeetako edukiak landuko ditu:

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakituriaren integrazio eta haien ekarpen sozial eta historikoa.
4. Gatazken konponketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Espazioak ikastetxean eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.
7. Berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala.
8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku-hartzea.



Gero eta hezitzaile gehiago (irakasle, senide zein bestelako hezkuntza-eragile) ari da emakume zein gizonentzat, pertsona ororentzat, **jendarte bidezkoagoaren alde** indarrak biltzen. Eta horretan da, hain zuzen ere, ikastaro honek lagundu nahi duena, **ikasgelatik hasita**, esku-hartze hezitzaileak hezkidetzaren oinarriko zutabeekin eta gizarteak aldarrikatzen ari denarekin koherentea izatea.

Gainera, epe laburrean EAEn ezarriko den Oinarriko Curriculum berriaren dekretuak (une honetan zirriborro egoeran) honako hau aipatzen du oinarriko elementuen artean hezkuntza-ereduaren hobekuntzan aurrera egiteko:

- **Hezkidetz**a, maila eta modalitate guztietan, ikastetxeen antolaketa pedagogikoaren irizpide orientatzailea den aldetik eta **hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa** den aldetik, funtsezkoa da pertsonen garapena errazteko, sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren araberako estereotipoen eta rolen kanpo.
- Arreta berezia eskaintzea ikasleen **ongizate emozionalari** eta hezkuntza-komunitate osoaren **zainketa**ri. Arreta horretan sartzen dira ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egiteak eta modu positiboan gainditzeak sortzen duen gogobetetasun-esperientzia pertsonala. Ongizate emozionala funtsezkoa da ingurumeneko eskaerei eta egoerei (ikaskuntza barne) aurre egiteko edo horietara egokitzeo. **Curriculumak** ongizate emozionalean lagundu behar du.

Haur Hezkuntzaren printzipio pedagogikoen artean hau: *Hezkuntza-ekintza inklusiboak askotariko esperientziak, erreferenteak eta ikaskuntzak eskainiko ditu ikasle guztientzat, kulturarteko ikuspegi globaletik, eta ez etnozentrkotik eta androzentrkotik. Modu pertsonalizatuan egokituko dira haur bakoitzaren eboluzio-unerako eta lan-erritmo pertsonaletarako.*

Oinarriko Hezkuntzan: *curriculumaren zehaztapena eta garapena bideratu beharko da ikasle guztiak gizarteratzera, garapen pertsonal orekatua izatera, herritartasun kritikoa, berdintasunezko, aktibo eta konstruktiboa eraikitzen, eta geroztiko prestakuntza-prozesuetarako sarbidea erraztera.*

Batxilergoan: *Jakintzagai guztietatik zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasunerako hezkuntza, sentsibilitate estetikoa eta sorkuntza artistikoa, iraunkortasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrekiko errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarrera eta portaeren prebentzioa, eta berdinen arteko kooperazioa. Bereziki, indarkeria matxistarekin, LGBTIfobikoarekin, arrazistarekin edo edozein motatako aniztasunarekin lotutako indarkeria-motaren bat jasatean sortzen diren ondoeza-egoerak identifikatu behar dira.*

Hezkidetzaren eragin esparrua oso zabala izanik, ikastaroa lerrokatuko da, bereziki, EAEko II. Hezkidetz Planaren 2. helburu estrategikoarekin, hots, Ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea. Barne du 2.1 helburu zehatza: curriculumean genero-ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak eta ekarpenak egitearen lan-ildoak.

Bukatzeko, ikastaroaren online izaerari jarraiki, partaideek eremu digitaleko edukiak eta proposamenak ezagutzeaz gain, aukera izango dute **Konpetentzia Digitala hezkidetzaren**

ikuspegitik garatzeko. Izan ere, gaur egun etengabeko garapen profesionalerako baita herritar aktibo izateko ere, **offline zein online** dimentsioan **oinarrizko konpetentziak** garatzea ezinbesteko bihurtu da.

2. HELBURU OROKORRAK

- Eguneroko bizitarako eta eskolako zein eremu-hezitzaileko alderdi ezberdinetan **sexismoa, identifikatu eta esku-hartzeko gai izan.**
- Genero-indarkeriaren (curriculum-, material-, espazio-, errepresentazio-, hizkuntza- eta interakzioetan ageriko eta ezkutuko indarkeria) identifikazio eta prebentziorako Hezkidetzaren **baliabide teoriko-praktikoak** aplikatu.
- **Hizkuntza hezkidetzaille-inklusibo ez sexistaren** erabileraren garrantziaz ohartu eta praktikan jarri.
- Eskolarako zein bestelako eremu-hezitzaileko hezkidetzan oinarritutako **curriculum-materialak identifikatu, bilatu eta/edo sortzeko erremintak** erabili.
- **Curriculum ezkutua** identifikatzeko, era eraikitzailean kritikatzeko eta ordezkatu edo zuzentzeko gai izan.
- Ikastaroan egindako bidea jorratzen jarraitzeko, hurbileko inguru hezitzailean **esku-hartze hezkidetzaillearen planifikazioa** egin.

2.1 HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Eguneroko bizitzako eta eskola zein eremu-hezitzaileko **aurrez aurreko zein esparru digital** ezberdinetan **sexismoa errekonozitzen, esplizitu egiten eta ondorioak identifikatzen** jakin, diseinatzen diren curriculum zein ikas-irakas esku-hartzeek hezkidetzalla-ikuspegia izan dezaten.
- **Ezagutza feminista**, ez androzentriko eta inklusiboak sustatzeko bideak jakin, **bakarka zein taldean**, aurrez aurre, online zein jardun bikoan, norberak bere interesetatik abiatuta eta bere inguru hurbiletik eta **baliabide teoriko-praktikoz** jantzita, lankidetzalla zein konpetentzia emozionalak landuz.
- Eskolan eta eremu hezitzaileetan **orientazio** eta ibilbide pertsonal zein akademiko parekideak eta ez estereotipatuak sustatzeko gakoak ezagutu, bidean **hezkidetzalla oinarritutako materialak** identifikatu edo sortzeko gai izan.
- Ikasleek funtsezko konpetentziak, espezifikoak eta oinarritutako jakintzak parekidetasunean garatu ditzaten, gai izan **hezkidetzalla bideratutako ikas-irakas prozesuak planifikatzeko**, baita ebaluazio-irizpide inklusibo eta ez sexistak erabiltzeko ere.

3. EDUKIAK

1. astea. **Sarrera.**

Aurkezpenak.

Ikastaroaren funtzionamendua. Gakoak.

2. astea. **Hezkidetzaren oinarriak helburu.**

Hezkidetzeta eta ezagutza.

Ekarpenak feminismotik.

3. astea. **Curriculum ezkutua zein agerikoa. Emakumeen protagonismoa.**

Emakumeak bistartzeko gakoak: Androzentrismoa eta ikusezintasuna.

Errepresentazioa. Partaidetzeta. Orientazioa.

4. astea. **Ebaluazio hezkidetzailerantz. Curriculum eta baliabideak.**

Hizkuntza-Komunikazio inklusiboa. Ebaluazio hezitzaile hezkidetzailerantz.

Feedback hezkidetzailerantz.

5. astea. **Nahieran antolatzeko astea.**

Aurreko gaiak borobiltzen edo azken lanari lehenengo hurbilketa egiten.

Edo beste kontu batzuetarako tarteak, eduki berriak gabeko aste librea!

6. astea. **Ikasgelatik kanpo ere bai!**

Espazioen kudeaketarako gakoak.

Ospakizunak, curriculum parekidearekin bat.

7. astea. **Hezkidetzaren aldeko legedia, printzipio, manifestu eta protokoloak.**

Lege markoak begirada glokaletik.

Internet feministarako printzipioak. Justizia Digital Feminista. Protokoloak.

8. astea. **Esku-hartzearen plangintza.**

Nire inguru hurbilera begira: diagnostikotik ekintzetara.

Etorkizun hurbilerako hezkidetzeta ekimenak planifikatzen.

4. DENBORALIZAZIOA

Ikastaroak **8 asteko** iraupena du.

Ikastaroa **5 ECTS** kreditukoa da, **125 orduko**a, barne hartzen dituelarik lanordu teorikoak zein praktikoak.

Ikastaroa egiteko **bi deialdi** egongo dira: **urria-abendua** bitartean eta **urtarrila-martxoa** bitartean.

5. METODOLOGIA

Ikastaro honek esanguratsua eta partaide bakoitzaren **errealitatean eraginkorra izan nahi du** hasiera hasieratik, horretarako, teoritik praktikara eta jarduera praktikoetatik teoriara norabideak sustatuko dituelarik. **Ikastaroaren edukiak progresiboki garatuko dira** aste baterako lan-plangintzen bitartez.

Hezkidetzaren edozein hezkuntza-eremu, ekintza, egoera eta gunean kontuan hartzeko denez, ondokoak proposatuko zaizkio partaide bakoitzari, bere benetako beharrei erantzun diezaien:

- Alde batetik, **ikastaroan zehar ibilbide propioa egitea**, bere benetako beharretan oinarritutakoa. Horretarako astero izango dira bere inguru errealarari begiratuko dioten jarduerak.
- Bestalde, ikastaroan zehar gainerako **ikaskideekin foro birtualean parte hartzea**, berdinaren arteko ikaskuntza eta elkarren arteko lana sustatzeko.

Eskainiko diren jarduerak praktikoak eta landutako edukietan oinarritutakoak dira, hezkuntza formaleko hezitzaile baten eguneroko lanarekin lotura zuzena dutenak, eta ahal den neurrian **ikasleekin erabiltzeko moduko jarduerak** sustatuz.

Ikastaroak duen online izaerari jarraiki, ikasleek burutu beharreko ataza-proposamenek eragingo dute Europako herritarrentzako **Konpetentzia Digitalaren** DigComp markoak proposatzen dituen **5 arloetan**: Informazioa eta datuak bilatzea eta kudeatzea, Komunikazioa eta lankidetzaren, Sortzea eduki digitalak, Segurtasuna eta Arazoak konpontzea. Bukatzeko, modu lehenetsian, ahal den guztietan plataforma libreak eta izen ematerik eskatzen ez dutenak proposatuko dira, baita euskaraz aritzeko aukera ematen dutenak ere.

6. NORI ZUZENDUTA

Berritzegune, Irale, ISEI_IVEI eta Ikuskaritzako profesionalei, ikastetxeko berrikuntza arduradunei, orientatzaileei, zuzendaritza-kideei, irakasleei eta interesa duen edonori.

7. EBALUAZIOA

Ebaluazioaren oinarri izango dira **informazio-batuketa, hausnarketa, kritika eta konpromisoa**, kontuan izanik dimentsio kognitiboa zein emozionala. Ebaluatuko dira ikasle bakoitzaren aurrerapenak eta, baita ere, ondorengo edizioen hobekuntzari begira, ikastaroa bera.

Ebaluazioak fase esanguratsu ezberdinak izango ditu:

- Ikastaroaren hasieran partaide bakoitzak bere **abiapuntua** ebaluatuko du.
- **Ikastaroan zehar** ikasleek egindako eta partekatutako lanak irakasleak baloratuak izango dira.
- **Ikastaroaren amaieran** partaide bakoitzak egindako aurrerapenak, bizitako zailtasunak eta hobetzeko proposamenak aztertu eta baloratuko ditu.

Ebaluazio-irizpideak

- Ikaskideekin lankidetzeta.
- Irakasleek emandako jarraibideak eta jarritako epeak betetzea.
- Inguru hurbilean hausnarketak eta praktikak martxan jartzea.
- Ekarpenen kalitatea.
- Edukien menperatze eta garapen maila.
- Sormena.
- Diskurtsoaren antolakuntza.
- Baliabideen erabilera.

Kalifikazio-irizpideak

1. astea. Sarrera. Aurkezpena	%5
2. astea. Hezkidetzaren oinarriak helburu	%15
3. astea. Curriculum ezkutua zein agerikoa. Emakumeen protagonismoa	%15
4. astea. Ebaluazio hezkidetzailerantz. Curriculum eta baliabideak	%15
5. astea Nahieran antolatzeko astea.	-
6. astea. Ikasgelatik kanpo ere bai!	%15
7. astea. Hezkidetzaren aldeko legedia eta protokoloak	%15
8. astea. Esku-hartzearen plangintza	%20
Guztira	%100

Gainditzeko gutxieneko irizpideak:

1. Azken asteko **plangintza aurkeztea** derrigorrezkoa da.
2. Ikastaroaren **%60a lortzea**.

8. EGILEAK/IRAKASLEAK

Beatriz Ugarte Maiztegi

M^a Luisa Otaduy Bengoa

M^a Jesús (Make) Irigoyen Perurena

Itziar irigoien Perurena



INFO <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkidetzan-esku-hartzen>